

Att.
Unai Sordo / Dámaso Casado
CCOO / UGT

Bilbao, 25 de julio de 2012

Estimados Dámaso y Unai:

En contestación a vuestro escrito os hacemos llegar nuestras consideraciones.

1. Dejaros constancia de la recepción el día 24 de julio de una carta remitida desde Madrid en la que se nos emplaza a una reunión prevista para el día siguiente.
2. ELA no comparte el juicio de valor (“claves diametralmente opuestas”) que hacéis en el último párrafo. ¿A qué es opuesto? Nuestras claves las conocéis, y se corresponden con el trabajo de una Plataforma sindical y social muy plural que trabaja en Euskal Herria, y que viene interpelando desde hace mucho tiempo al conjunto de las Administraciones Públicas para un cambio radical en la política. Igualmente, sois conocedores de nuestra opinión sobre la continuidad de las mesas llamadas de “diálogo social”, tanto en Gasteiz como en Iruña. Mantener esa referencia en la actual coyuntura nos parece absolutamente contradictorio con la situación de unilateralidad en la política, por el apoyo que se termina ofreciendo a los gobiernos que aplican recortes: No se puede hablar de la existencia de “diálogo social” en ningún ámbito institucional.
3. Somos perfectamente conscientes de la gravedad de los recortes y las reformas. Lo hemos sido desde el principio. Y somos defensores de la unidad de acción; sería estúpido lo contrario. Dicho eso, nos negamos a emplear la unidad de forma demagógica al margen de los objetivos a defender. La pregunta es... unidad ¿para qué? ¿Para hacer una gestión unilateral de la misma? Así se hizo en 2011, cuando acordasteis, entre otras cosas, el retraso de la edad de jubilación a los 67 años. Para hacer eso, no apelasteis a ninguna unidad; no se exigió ningún referendun, ni nada por el estilo. Se hizo y basta. Es más, se abrió vía a una reforma inacabada de las pensiones. Hoy sabemos que el PP está trabajando otra. Además, nos parece obligado resaltar que una forma de empobrecimiento viene de la mano de la centralización de la negociación colectiva. Vuestras organizaciones en el Estado, con la patronal CEOE, están cerrando acuerdos para imposibilitar que en Euskal Herria podamos decidir en qué ámbito y qué contenidos negociamos.

IDAZKARITZA NAGUSIA
SECRETARIA GENERAL

4. ELA critica duramente la uniformización de la política, que en el Estado español se consigue mediante la utilización de las leyes básicas, y constatamos con preocupación que, más allá de la retórica partidaria, allí donde gobiernan los partidos aplican las políticas que Rajoy decide. No hay que criticar solo a Rajoy. Creemos necesario interpelar a todos los partidos e instituciones sin exclusiones. Es inaceptable, desde nuestro punto de vista, que las Administraciones Vascas, en un momento en el que se procede a un gravísimo empobrecimiento social, se limiten a presentar un recurso al Tribunal Constitucional cuyo recorrido conocen. Necesitamos que se abra un conflicto político real entre quienes dicen no estar de acuerdo con las medidas de Rajoy y los que sí y, en opinión de ELA, el punto de credibilidad para los que no están de acuerdo empieza por no cumplir, por desobedecer y no aplicar. Ese referente de interpelación a toda la clase política debe ser subrayado por los sindicatos para quitar valor a las proclamas que desde algunos partidos de “izquierda” se hacen llamando al consenso político. ¿Por qué no se interpela al resto de partidos para exigir que no cumplan? Hoy, lo sabemos muy bien, ese consenso se da en base a políticas antisociales.
5. Nos llama la atención que CCOO y UGT obvien entre sus conclusiones que las grandes decisiones que nos afectan están acordadas por los grandes partidos: pasar la deuda privada a pública para pagarla en base a recortes; modificar la Constitución para que la prioridad sea pagar a los especuladores; el pacto de estabilidad cerrado el 21 de junio en el Congreso, y usar la ley básica para “obligar” a hacer una sola política. Todo eso ha sido acordado por los grandes partidos. ¿Por qué se excluye de la crítica al resto de partidos?
6. Dentro de las movilizaciones acordadas para Hego Euskal Herria damos mucha importancia a la huelga general convocada para el 26 de septiembre. Esta convocatoria está liderada por la mayoría representativa en el ámbito sindical y social vasco; una mayoría que defendemos sea respetada. Nos parecería muy bien que se coincidiese ese día por parte de todos, igual que sucedió el 29 de marzo de 2012. Es más que probable que en próximas fechas el gobierno de Rajoy -sin respetar Parlamento, ni nada parecido- anuncie nuevos y duros recortes que, en su caso, reforzarán el sentido de la convocatoria realizada.

Atentamente,



Adolfo Muñoz “Txiki”
Secretario General de ELA

Unai Sordo / Damaso Casado
CCOO / UGT

Bilbo, 2012ko uztailaren 25a

Damaso eta Unai adiskideok:

Zuen idatziari erantzunez, honakoa erantzun nahiko genizueke:

1. Jakin dezazuen, uztailaren 24an Madrildik UGT eta CCOOen idazkari nagusiek bidalitako gutuna jaso dugu, biharamonean egitekoa den bilera batera dei egiten digutelarik.
2. ELA ez dago ados azken paragrafoan egiten duzuen epaiarekin (“guztiz kontrako gakoak”). Zeren kontrakoak esan nahi duzue? Gure gakoak ezagunak dituzue: Euskal Herrian lan egiten duen plataforma sindikal eta sozial oso plural batean ari gara lanean, eta plataforma honek aspaldidanik galdegin die herri-administrazio guztiei politika errotik alda dezatela. Halaber, badakizue Gasteizko zein Iruñeko “gizarte-elkarrizketako” mahaien jarraipenari buruz gure iritzia zein den. Oraintxe erreferentzia horri eustea politikan nagusi den aldebakarreko jardunbidearekiko erabateko kontraesana da, azkenean murrizten ari diren gobernuei babesa ematen baitzaie. Ezin da esan inongo esparru instituzionaletan benetako “gizarte-elkarrizketa” dagoenik.
3. Ondo asko dakigu murrizketak eta erreformak oso larriak direla. Hasieratik bagenekien. Eta ekintzan bat egitearen alde gaude; kontrakoa ergelkeria litzateke. Haatik, ez dugu onartzen hori demagogiarako erabiltzerik, hots, zein helbururen alde egin behar den saihestuta. Galdera da... zertarako batasuna? Berau era unilateralean kudeatzeko, 2011n gertatu zen bezala, besteak beste erretiro adina 67 urtetaraino atzeratzea hitzartu zenutenean? Horretarako ez zenuten inongo batasunik aipatu; ez zen erreferendumik, ez antzeko ezer exijitu. Egin egin zen, eta kitto. Areago, amaitu ez den pentsioen erreforma bati bide eman zitzaion. Gaur badakigu PP beste bat ari dela prestatzen. Gainera, gure ustez, ezinbestekoa da nabarmentzea pobretzea ere badela negoziazio kolektibo gero eta zentralizatuagoaren ondorioa. Estatu mailan zuen sindikatuak, CEOE patronalarekin batera, akordioak iristen ari dira, Euskal Herrian zein esparrutan eta zer eduki negoziatzen den galarazte aldera.
4. ELAk kritika gogorra egiten dio politikaren uniformizazioari; berau espainiar estatuan oinarri-legeen bitartez gauzatzen da. Kezkaz ikusten

IDAZKARITZA NAGUSIA
SECRETARIA GENERAL

dugu, gainera, erretorika alderdikoia alde batera utzita, agintzen duten esparruetan alderdiek Rajoyren politikak aplikatzen dituztela. Gure ustez, alderdi eta instituzio guzti-guztiei galdegin behar diegu gauza bera. Ezin da onartu euskal administrazioen erantzun bakarra, gizartearen pobretze lazgarria egiten ari diren une honetan, Auzitegi Konstituzionalean helegiteak sartzea izatea, horien ibilbidea zein izango den badakitelarik. Benetako gatazka politikoa sortu behar da Rajoyren erabakien aurka daudela diotenen eta alde daudenen artean. ELAren iritziz, desadostasuna sinesgarria izan dadin hasteko ez da bete behar, ez obeditu edo aplikatu ere. Klase politiko osoari egindako interpelazio hori sindikatuak areagotu egin behar dute, horrela balio guztia kenduko baitzaie ezkerreko omen diren alderdi batzuk egiten dituzten kontsentsu politikoaren aldeko aldarrikapenei. Zergatik ez zaie exijitzen beste alderdiei ez dezatela obeditu? Gaur, ondo dakigunez, kontsentsu horren oinarria politika antisozialak dira.

5. Harritzekoa iruditzen zaigu CCOOek eta UGTk ondorioen artean ahaztea guri eragiten dituzten erabaki handiak alderdi handiek hartzen dituztela: zor pribatua publiko bihurtzea, murrizketak eginez ordaintzeko; Konstituzioa aldatzea lehentasuna espekulatzailaiei ordaintzea izan dadin; Kongresuan ekainaren 21ean onartu zen Egonkortasun Ituna, eta oinarri-legeak erabiltzea politika bakarra egitera "behartzeko". Hori guztia alderdi handiek erabaki dute. Zergatik ez zaie kritikarik egiten gainerako alderdiei?
6. Hego Euskal Herrirako adostu diren mobilizazioen artean garrantzi handia ematen diogu irailaren 26rako deitu den greba orokorrari. Deialdi hau euskal esparru sindikal eta sozialeko gehiengo errepresentatiboak gidatzen du, eta gehiengo hori aintzat hartzea nahi dugu. Oso ondo iritziko genioke egun horretan guztiok bat etortzea, joan den martxoaren 29an gertatu zen bezala. Seguruenik laster Rajoyren gobernuak -Parlamenturik eta besterik aintzat hartu gabe- murrizketa latz gehiago iragarriko dituela; hau horrela balitz, deialdiak are indar handiagoa hartuko luke.

Adeitasunez,

Adolfo Muñoz "Txiki"
ELAko idazkari nagusia